

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gaur egun teknologiaren erabileraren gorakadarekin, pertsonen aurrez-aurreko harremanak galtzen ari dira. Horregatik, gure proiektuarekin aurrez-aurreko harreman horiek berreskuratu nahi ditugu bilerak eginez baina baita ere hori lortzeko teknologiaz baliatuko gara, gure bozgorailu eta web orriaren bitartez.

Aurrez-aurreko harremanak izango dira nagusienak gure projektuan. Gure zerbitzuen bidez zerbitzu pertsonalak emango ditugu, guk eskaintzen ditugun zerbitzuen barruan, bezeroaren beharretara egokituz. Lehenengo kontaktua gure bulegoan izango da, bezeroek gure zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko eta guk beraien beharrak jakin eta zer zerbitzu behar dituzten adostuko ditugu, gure bezeroari zerbitzua beraien arabera pertsonalizatuz. Ondoren bezeroek nahi badute, adinekoen etxebizitzetara joango gara eta beraien egoeraz informatuko gara.

Gure bezeroekin harremana ere automatizatua izango da; izan ere, gure bozgorailuaren bitartez jasoko ditugu gure bezeroek behar dituzten zerbitzuak eta guk horiek eskainiko dizkiegu.

Beste modu bat gure bezero eta bezero berriekin harremanetan jartzeko gure web orriaren bitartez izango da. Web orri bat egingo dugu jendeak guri buruz jakiteko eta guri buruzko informazioa eskuragarri izateko eta interesatuta egongo balira gurekin harremanetan jartzeko. Horretarako, SEOn aditua eta jakituna den pertsona batekin lankidetzan arituko gara, gure web orriaren posizionamenduan lagunduko diguna, hura lehen emaitzetan agertu dadin eta honela bezero gehiago erakarri ditzakegu.

Gure bezeroekin lortu nahi dugun harremana epe luzekoa da, hau da, gure zerbitzua kontratatzen duten momentutik harreman iraunkor bat sortu nahi dugu, behar duten momentuan gure zerbitzuetatik behar dutena eskatuz eta guk beraien hura eskainiz.